

1999ko MARTXOAREN 24ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzi martxoaren hogeita lauean, gaueko bederlatziak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Ibarburen Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziak ez dira agertu, nahiz eta jakinean egon eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- BAKE EPAITEGIKO IDAZKARIAREN IZENDAPENA

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, Ibarran egoitza duen Bake Epaitegietako Idazkaritzen Baterakundean sartu eta bertatik banatzeari buruzko, 1999ko otsailaren 18ko agindua luzatu du.

Horren arabera, Lizartza, Bake Epaitegietako Idazkaritzak Ibarran duen Bake Epaitegietako Idazkaritzen Baterakundetik banatzea onartzen da. Ondorioz, Udal honek, Lizartzako Bake Epaitegiko Idazkaria izendatu behar du.

Guzti hori kontuan izanez, eta Bake-Epailearen aldeko txostena jaso ondoren, Lizartzako Bake Epaitegiko Idazkari bezala, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea den eta, Habilitazio Nazionala duen, ANA JESUS ZABALA GARMENDIA funtzionaria izendatzea proposatu da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

3.- EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO, UDALA ETA EUSKADIKO KUTXAREN ARTEKO HITZARMENA

LIZARTZAKO UDALA eta EUSKADIKO KUTXAREN ARTEKO

HITZARMENA

EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO

Arrasaten, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretziko martxoaren hogeita bostean.

BILDURIK

Alde batetik, **JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE**, Lizartzako Udaleko Alkatea, beronen izenean eta ordezkari, eta horretarako ahalmendua.

Eta bestetik, **JUAN JOSE ARRIETA SUDUPE** Jauna, EUSKADIKO KUTXAren izenean eta beronen ordezkari.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskumen eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

AITORTZEN DUTE:

Lizartzako Udala, herri langile eta herritarren artean euskararen erabilera gehitu asmoz ahaleginetan ari dela eta jabetua dela, alegia, **EUSKADIKO KUTXAK** dituen bulegoak, herritar askoren topagune ezin hobeak direla euskara erabiltzeko.

EUSKADIKO KUTXA bere aldetik, bezeroei zerbitzu hobea eskaintzeko, euskararen presentzia ugaltzen, indartzen eta sendotzen ari dela esparru guztietan.

Nolanahi ere, Udal eskualde euskaldunetan euskarak trataera berezia behar du; izan ere, soziolinguistikoki euskaldunak gehiago diren eremuetan euskararen erabilerak horrela eskatzen baitu.

Aipatu beharrekoa dela, halaber, **EUSKADIKO KUTXAK**, Udalerrien, euskara, hezkuntza, kultura eta kirolaren inguruko ekimen ugari babesten dituela, **LIZARTZAKO** herrian.

LIZARTZAKO Udalak eta EUSKADIKO KUTXAK, hitzarmen honen bidez, orain arteko lankidetzak indartu eta sakondu egin nahi dutela euskararen erabilera zabaldu eta indartzeko.

Bi erakundeek ere aldi berean aitortu egin nahi dutela, alegia, **Tolosako Euskadiko Kutxako** enplegatuek eta era berean Udalekoek ere, euskara erabiltzeko adierazi duten borondate eta konpromezu-mailak egin duela bideragarri hitzarmen honen gauzatzea.

Horregatik, bi erakundeek, gure hizkuntzaren zabaltze eta sendotze-prozesuan protagonista izateko eta zuzenean eskuhartzeko, ondorengo konpromezu hauek

HITZARTU DITUZTE:

- 1.- Elkarren arteko harremanak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, euskara hutsean izango dira.
- 2.- Erakunde sinatzaileok, euskara ahalik eta gehien erabiltzen saiatuko dira beren funtzionamenduko esparru guztietan eta, poliki-poliki, horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarriko dituzte.
- 3.- Entitateak kutxazainen sarean instalatua duen pantailan azaltzen den sarrerako agurra euskaraz bakarrik izango da aurrerantzean.

4.- **Euskadiko Kutxa**, bere aldetik, **Tolosako** bere bulegoetan bezeroekin dituen harremanetan euskararen presentzia ugaltzen ahalegin berezia egitera konprometituko da, euskaldun bezeroek erdaldunekiko parekotasuna lortu arte.

5.- **Euskadiko Kutxa**, **Tolosako** bulegoetako presentzia (hormirudietan, iragarkietan, idazkietan, etb.) gehietzeko ahalegin berezia egitera konprometituko da.

Beste horrenbeste egin beharko litzateke informazioa zabaltzeko sortutako banka elektronikoarekin.

6.- **Lizartzako Udala**, bere aldetik, hitzarmen honen edukia eta bere garapenaren berri herritarrei adierazteaz arduratuko da.

7.- Kanpora begira euskararen aldeko irudia emateko, udalerrri hauetako sukurtsailetako kartelak euskarazko bertsioan jarriko dira.

8.- Konpromezu hauek, hasteko, hiru urterako hartu dira eta, hitzarmen hau eraginkorra izan dadin, jarraipen-batzordea jarriko dute martxan bi erakundekok, goian aipatutako helburuak lortu eta emaitzak aztertzeko.

Euskararen erabilera areagotzeko, Udala eta Euskadiko Kutxaren arteko Hitzarmena sinatu ahal izateko, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakaria den, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATERi ahalmenak ematea proposatu da.

Proposamena, aho batez onartua izan da.

4.- REPSOL. IGOKA ESPEDIENTEA

IKUSIRIK.- Lizartzako Aztinako Etxe Burua lurretan, Gasaren Almacenamendurako zentro eta banaketa sarea jartzeko baimen eskaera, eta horri buruz eman diren tramiteak.

IKUSIRIK.- Iharduera jarri nahi den eraikuntza, 1961eko Azaroaren 30eko Erregelamenduak dioenarekin, Udaleko Arauetara egokitu eta Arau Subsidiarioetako hirigintz kalifikazioarekin ados dagoela.

IKUSIRIK.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera proposatu da:

- 1.- Lizartzako Aztinako Etxe Burua lurretan, Gasaren Almacenamendurako zentroa eta banaketa sarea jartzeko baimenari, aldeko txostena luzatzea.
- 2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, GASAREN ALMAZENAMENDU ZENTROA ETA BANAKETA SAREA kalifikazioa proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

5.- INSALUS. KONPENTSAZIO PROIEKTUA

Agua de Insalus, S.A.k, promotore bezala erredaktatu, eta bere onarpenerako Udalean aurkertutako, Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-2 Hiri Area berriko ejekuzio unitateko, Konpentsazio Proiektua azterturik.

Agua de Insalus, S.A., U-2 Areako jabe eta promotore bakarra izanik, onarpenerako aurkeztu duen, Konpentsazio Proiektu horrek, Hirigintzako Gestio Erregelamenduaren 173. Artikuluan eskatzen dena betetzen ditu.

Horren arabera, zera proposatu da:

- 1.- Agua de Insalus, S.A.k, promotore bezala erredaktatutako U-2 Areako Konpentsazio Proiektuari lehen onarpenera ematea.
- 2.- Hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta Udaleko Iragarki taulan argitaratzea.

3.- Konpentsazio Proiektu horretan aurreikusten diren aportazioak gauzatu ahal izateko, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Jauna ahalmentzea, behar diren agiriak sinatzeko.

Agua de Insalus, S.A.k, promotore bezala erredaktatutako U-2 Areako Konpentsazio Proiektua aztertu eta eztabaidaturik, aho batez onartua izan da.

6.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

PLAZA SORO KOOPERATIBA

Plaza Soron, adosatutako 20 banakako etxebizitzaren garajeak jartzeko, Plaza Soro Kooperatibak egindako ikuskaritza bisita eskaeraren arabera, 1999ko Otsailaren 12an, Udaleko Arkitektoak eginiko Ikuskaritza Aktaren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- Eskatzen ziren baldintza eta neurri zuzentzaileak bete direnez, Aktibitate hori baimentzea. Era guztietara, are-hondarraz betetako ontzi bat garage bakoitzean isurkinak zurrupatzeko eta olio edo koipez zikindutako zapiak jasotzeko ontzi bat estalia jarri behar da.
- 2.- Ebazpen honen berri, Iharduera Gogaingarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsu Lurralde Batzordeari jakineraztea.

REPSOL BUTANO S.A.

Lizartzako Aztinako Etxe Burua lurretan, Gasaren almagaztaturako zentroa eta banaketa sarea jartzeko eta iharduera horri ekiteko eginiko baimen eskaera BAIMENTZEA erabaki dut, baldintzapen hauekin:

Luzatzen den baimena, behin behinekoa izango da; tramitatuko den IGOKA espedientean ezar litezkeen baldintzak eta neurri zuzentzaileak betetzearen ikuskapenerako, instalapenak erabiltzen hasi aurretik, behin betiko baimena eskatu beharko da.

JOXE MARTIN ZUBELDIA

Jose Martin Zubeldiak, herri honetako Kale Nagusia, 19ko etxeazpian dagoen lokalean, Kafetegi bat jartzeko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak, TABERNA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

1.- JOXE MARTIN ZUBELDIA AIERBE Jauna baimentzea, Kale Nagusia, 19ko etxeazpian dagoen lokalean TABERNA jartzeko, aurreago aipatzen diren baldintza eta Zuzenketa-Neurriei baldintzatuaz:

A) BALDINTZAK

- 1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.
- 2.- Akta hori lortu ahal izateko, Kooperatibak Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.

B.- EZARTZEN DIREN ZUZENKETA-NEURRIAK

- 1.- Organismo tekniko eskudunek orokorrean aplikatzeko emandako arau espezifikoak bete behar ditu; bereziki hauek:

- Udal ordenantzak eta hirigintza arauak.
- Laneko Segurtasun eta Higieneko Ordenantza Orokorra, 1971-03-09ko Agindua (1971-03-16 eta 17ko BOE) VI. Eta VII. Idazpuruak; Laneko Arriskuen Prebentzioaren azaroaren 8ko 31/1995 legea (1995-11-10eko 209 zk. BOE); eta horiekin bat datozen gainerako lege-arauak.
- Irailaren 20ko 2413/1973 Dekretuaren bitartez (1973-10-09ko 242 zk. BOE) eta 2295/1985 Errege Dekretuaren bitartez (242 zk. BOE) onartutako Behe Tentsioaren Elektroteknikako Erregelamendua; Jarraibide Tekniko Osagarriak; eta horiekin bat datozen gaineko lege-arauak.
- Irailaren 8ko 3099/1977 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Hozteko Planta eta Instalazioetarako Segurtasun Erregelamendua (1977-12-06ko BOE); 1978-01-24ko Agindua (1978-02-03ko BOE); eta horiekin bat datozen gainerako lege-arauak.
- Uztailaren 24ko 1909/1981 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Eraikinetako Baldintza Akustikoei buruzko NBE-CA-81 Eraikuntzako Oinarrizko Araua (1981-09-07ko BOE); 2115/1982 Errege Dekretuaren bitartez onartutako NBE-CA-82 Araua (1982-09-03 eta 1982-10-07ko BOE); 1988ko irailaren 29ko Agindua, NBE-CA-82 Arauaren eranskinetako zenbait alderdi argitzen eta zuzentzen dituena (1988-10-08ko BOE); eta horiekin bat datozen gainerako lege-arauak.
- Urriaren 4ko 2177/1996 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Oinarrizko Araua. Eraikinetako Suteen aurkako Babes Baldintzak, NBE-CPI-96. (96-10-29ko 261 zk. BOE).
- Abuztuaren 27ko 2816/1982 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Ikuskizun Publiko eta Jolas Jardueretarako Baldintzen Erregelamendu Orokorra (1982-11-06ko BOE); eta horrekin bat datozen gainerako lege-arauak.

- Abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Elkarterako ikuskizun publiko eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko zenbait baldintza ezartzen dituena (1997-12-19ko 243 zk. EHAA) eta uztailaren 28ko 210/1988 Dekretua, aurrekoa aldatzen duena (1998-08-03ko 145 zk. EHAA).
 - Jolas makinak edo zori makinak jarritz gero, honako arauak bete behar dituzte: 1991eko azaroaren 8ko 4/1991 Legea, EHAEn joko arautzen duena (1999-11-25ko EHAko 237 zk.), 1996ko abenduaren 24ko 308/1996 Dekretua, joko makinen, makina laguntzaileen eta jokorako beste instalazio eta sistema batzuen araudia onartzen duena (1997-01-27ko EHAko 17 zk.), eta 1997ko abenduaren 17ko Agindua, aipatutako araudia garatzen duena, joko makinei eta jolas makinen inguruko baimentze prozeduran dagokionez.
 - Urriaren 13ko 2817/1983 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Jantoki Kolektiboetako Osasun Arautegi Teknikoa (1983-11-11ko BOE); eta horrekin bat datozen gainerako lege-arauak.
 - Urtarrilaren 14ko 231/1965 Dekretuaren bitartez onartutako Turismo Enpresa eta Jarduera Pribatuak Antolatzeko Estatutua (1965-02-20ko BOE); 1965eko martxoaren 17ko Aginduaren bitartez onartutako Jatetxeen Antolamendu Turistikoa (Ministroaren 1970eko ekainaren 19ko Agindua) eta horiekin bat datozen gainerako lege-arauak eta gainerako arautegi autonomikoa.
- 2.- Bibrazioen aurkako elementuak erabiliko dira makineria inguratzeko.
 - 3.- Behar diren neurriak hartuko dira eraikinaren egiturara eta inguruko lokal eta etxebizitzetara bibrazioarik ez igortzeko.
 - 4.- Lokala hotsgabetuko da, aldameneko lokaletan eta hurbileneko etxebizitzetako logela, sukalde eta egongeletan, hotsak gehienez ere maila hauek edukitzeko moduan:

- Goizeko 8etatik gaueko 10ak arte: 40 dB(A), 60 segundu jarraiko hots maila baliokidea (Leq.60-s) neurtuta, eta 45 dB(A), gehieneko hots maila (Lmax) neurtuta.
- Gaueko 10etatik goizeko 8ak arte: 30 dB(A), 60 segundu jarraiko hots maila baliokidea (Leq.60-s) neurtuta, eta 35 B(a), gehieneko hots maila (Lmax) neurtuta.

Dena dela, gai horri buruzko udal arautegirik baldin badago, hori ere bete egin beharko da.

- 5.- Musika aparatuei dagokienez, irratia, telebista eta musika haria bakarrik erabili ahal izango dira, eta lokaleko edozein puntutan 75 dB(A) ez gainditzeko moduan ainguratuta egongo dira.
- 6.- Aireztapena eta ke eta gasen hustuketa xede horretarako bakarrik izango den kebide batetik egingo da. Kea eta gasak biltzeko eta kanpora botatzeko sistema egokiak jarriko dira eta, kebidetik, etxeke eta/edo aldameneko etxeetako teilategala baino 2 m. gorago eramango dira, auzokoei zaratarik, usainik, eta bibrazioarik helarazi gabe.
- 7.- Sukaldean erabiliko den energia gasa izango denez, gas detektagailu automatikoa instalatu behar da, gas ihesik egonez gero, hornidura mozteko gailu bati eta, aldi berean, ikus-entzuteko seinale bati eragingo diena. Ikus-entzuteko seinalea kanpotik ikusteko moduko tokian ipini behar da.
- 8.- Lokaletik etxebizitzako sarrerako edo atarikitara pasatzeko ateak gutxienez 60 minutuko su kontrako erresistentzia eduki behar du eta ez dio keari pasatzen utziko.
- 9.- Ixteko orduei dagokienez, proiektuan aipatzen diren jardueri begiratuta, lokal hau goian aipatu den iazko abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuko 2. artikuluko 2. taldekoen parekotzat jo daiteke. Parekotzat jotze hori jarduera irekitzeko baimenean jaso behar da.

- 10.- Su itzalgailu eramangarriak ipiniko dira: hauts balioanitezko BAT, 21Ako eraginkortasuna duena, eta CO²ko BESTE BAT, 21Bko eraginkortasuna duena.
- 11.- Instalatzen diren suaren kontrako bitartekoen mantenimenduari dagokionez, 1942/1993 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Suteen kontra Babesteko Instalazioen Arautegia (1993-12-14ko BOE) eta 1998ko apirilaren 16ko Agindua (1998-04-28ko 101 zk. BOE) bete behar dira.
- 12.- Udalak ez dio titularrari jarduerarako baimenik emango, harik eta elektrizitateko instalazioari, eta hotz, gas eta abarreko elementuei buruz Industria Ordezkaritzak emandako baimena aurkeztu arte.
- 13.- Proiektuan adierazita dauden zehazpenak eta neurri zuzentzaileak nahitaez bete behar dira, goian aipatutako jarraibideekin bat ez datozenean izan ezik.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du,